



Arartekoaren 2013ko abenduaren 5eko ebazpena. Horren bidez, gomendatzen zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari ondorioz gabe utz dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta baten horri dagokion Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren etetea, arrazoirik gabea izateagatik eta prozedura-arauak bete ez izanagatik.

Aurrekariak

(...) kexagileak, sahararra jatorriz, salatzen du kexan uztailaren 5ean eten egin zutela kobratzen zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta. Eteteko emandako arrazoia da ez zuela aurkeztu, zegokion epean, jatorrizko herrian ondasun higiezinik ez edukitzearen ziurtagiria.

Kexagileak dioenez, Lanbidek emandako argibideei jarraituz agiriak aurkeztu zituen 2012ko maiatzaren 23an, eta horiekin batera, prestazioak aitortzeko eskabidea.

2013ko apirilaren 9an bidalitako idazki batez, Lanbidek jakinarazi zion interesdunari etete-prozedura bat ireki zela eskatutako dokumentazioa (zehazki, jatorrizko herrialdeko ondasunei buruzko ziurtagiri bat) epearen barruan ez aurkezteagatik. Idazkiari erantzunez, hil bereko 25ean kexagileak bi ziurtagiri aurkeztu zituen, bata Marokoko agintaritzak emana eta bestea Saharakoak emana.

Hala eta guztiz ere, maiatzaren 25ean bidalitako idazki baten bidez jakinarazi ziotenez, *"eteteari eustea"* ebatzi zen, eta horretarako arrazoia zen *diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa dituen betebeharrak ez betetzea*.

Lanbideren azalpenei jarraituz, ekainaren 5ean prestazioak berriz jasotzea eskatu zuen.

Kexa izapideetara onarturik, uztailaren 5ean Arartekoak informazio-eskaera bat helarazi zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari, gai hauek planteatuz:

Alde batetik, gogoratzen genion 30/1992 Legeak 35f) artikuluan xedatutakoa, hau da, herritarrek eskubidea dutela administrazio jarduleak lehendik badauzkan agiriak ez aurkezteko.

Azpimarratzen zen, bestetik, kontraesanak daudela Lanbidek mota horretako egintza administratiboak jakinarazteko erabiltzen dituen agirietan. Izan ere, eteteko





prozeduraren hasia zela jakinarazten zuen apirilaren 9ko idazkiaren arabera, erreklamaziogileak hamar eguneko epea zuen alegazioak aurkezteko *“para evitar la suspensión de dicho pago”*, eta horrekin batera jakinarazten zitzaionez, *“se suspende cautelarmente el derecho a percibir la prestación”*. Lanbideri azaldu genionez, uste dugu jarduteko era hori nahasgarri samarra izan dela kexagilearentzat, idazkian adierazitakoa gorabehera Lanbidek utzia baitzioten jadanik diru-sarrerak bermatzeko errenta ordaintzeari, interesdunak ezer egin ezinik horren aurrean. Gogoratzen genuenez, kautelazko etetea aplikagarria da baldin badago zantzuren bat pentsarazten duena desagertu dela eskubide bat onartzeko edo edukitzen jarraitzeko behar diren ezaugarri edo egoeretakoren bat, ez ordea zantzuek betebeharren bat betetzen ez dela iradokitzen dutenean, kasu honetan bezala.

Azkenik, informazioa eskatzen zen, besteak beste, maiatzaren 25eko idazkian (*“eteteari eusteko”* ebazpena) aipatzen zen etete motari buruz.

Azaroaren 13an Lanbideren erantzuna jaso genuen.

Erantzunean baiesten zen, 2012ko maiatzaren (...)an kexagileak ondasun higiezinik ez edukitzearen ziurtagiria aurkeztu zuela, Euskadi-Sahara Etorikin Sahararren Elkarteak (EUSAH) emana. Baina —gaineratzen dute— *“Mauritaniako pasaportea duela ikusi da, eta horregatik, dagokion ondaSun higiezinaren ziurtagiria eskatu zaio, eta hamar eguneko epea eman, dokumentazio hori aurkezteko (...) lehen aipatutako hamar eguneko epean, interesdunak ez zuen aurkeztu eskatutako dokumentazioa”*.

Planteatu genituen gaiez adierazten denaren arabera, *“2013ko maiatzaren 25eko idazkian aipatutako etenaldia (...) apirilaren 9an hasitako berraztertze-prozeduraren ondorio da”*, eta *“2013ko maiatzaren 25eko ebazpenaren bidez eten zen prestazioa”*.

Eteteko arrazoia dela-eta azaltzen denez, *“dokumentazioa eskatu zitzaion; zehazki, jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria, espedientean ez zegoelako, eta interesdunak ez zuen dokumentazioa aurkeztu epearen barruan. Behin hura aurkeztuta, prestazioa berrezarri zitzaion”*.

Prestazioak berriro ordaintzeko ebazpena uztailaren 21ekoa zen, eta haren ondorioak, ekainez geroztikoak.





Gogoetak

1. Gorago esan bezala, kexagilea sahararra da jatorriz. Jakina da herri horretako pertsonak egoera berezian daudela, ez zaielako inongo herritartasunik aitortzen. Gehienetan, Lanbidek aintzat hartu ohi du berezitasun hori, eta izan ere, ohiko etxebizitzaz gain beste ondasun higiezinik ez edukitzeari dagokionez, kolektibo honen kasuan gainerakoekin ez bezala jokatzeko da, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskabide-orrietan ikusten denez.

Halaxe da. Kexagileari prestazioak eskatzeko eman zioten inprimakiak honako hau dio eskatzen den higiezei buruzko ziurtagiria lortzeko eraz: *"a solicitar en la embajada de su país de origen, consulado o en el caso de personas procedentes del Sahara, certificado de la asociación de este colectivo"*.

Lanbidek erantzun-idazkian adierazten duenez, kexagileak EUSAH elkartearen ziurtagiria aurkeztu zuen eskabidearekin batera.

Horregatik uste dugu nolabaiteko kontraesanak daudela Lanbideren jokatzeko eran, azaldu digutenaren arabera *"Mauritaniako pasaporte duela ikusi"* baita, baina hala eta guztiz ere hamar eguneko epean aurkezterik ez daukan ziurtagiri bat eskatzen zaio, aipatutako pasaporte edukitzeak ez duelako frogatzen bera mauritaniarra denik. Jakina da, gainera, sahararren kolektiboa osatzen dutenek ez dutela inongo herritartasunik aitorturik.

Gure iritziz, kexagileari ez zitzaion eskatu beharko Mauritaniar ondasun higiezinik ez edukitzearen ziurtagiria, ez delako hori haren jatorrizko herria eta sahararra izanik ez duelako eskakizun hori bete beharrik, Lanbidek berak eskabide-orrietan darabilen irizpidearen arabera. Eskakizuna beteta geratu zen eskabidea aurkeztean bertan, horrekin batera bazihoalako EUSAHk emandako ziurtagiria, ondasun higiezinik ez zeukala egiaztatzen zuena.

Ez gatoz bat, hartara, Lanbidek erantzun-idazkian adierazitakoarekin, gure iritziz aplikagarria baita, bi aldiz aplikagarria hain zuzen ere, 30/1992 Legearen 35f) artikulua: *"Herritarrek herri-administrazioekiko harremanetan eskubide hauek dituzte: Ez dute aurkeztu beharrik kasuan kasuko prozedurari aplikatzen dakizkikeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk"*.





2. Mauritaniako ondasunen ziurtagiria zertan eskaturik ez zegoela ohartzeaz gain, azpimarratzekoa da kexagileari izapide horretarako eman zitzaion hamar eguneko epea ez zela inondik ere behar adinakoa.

Lanbide bera jakitun da estatu batzuetako administrazioaren berezitasunagatik izapide batzuk luzatu egin daitezkeela denboran, ezinezkoa izanik, hortaz, kasu honetako ziurtagiriak eta antzekoak epe barruan eskuratzea. Horrexegatik errazten da, hain zuzen ere, eskakizuna betetzea, eskabide-inprimakian bertan honako hau ohartarazten delarik ondasunen ziurtagiria aurkeztu beharraz: *"certificado de bienes inmuebles del país de origen o resguardo de haberlo solicitado en caso de que no pueda aportarlo en el caso correspondiente. Declaración jurada mientras llega la correspondiente documentación"*.

Beraz, eta Lanbideren beraren irizpideari helduz, uste dugu kexagileari baldintza hori betetzeko eskatzekotan zinpeko deklarazio bat aurkezteko aukera planteatu beharko zitzaiola, hamar egun emanaz horretarako.

3. Etete-prozedurari dagokionez, esan beharra dago kasu honetan ez dela bete.

Alde horretatik, arazo nagusia da Lanbidek emandako datuekin ez dagoela zehazterik zer motatakotzat jo behar diren apirilaren 9ko eta maiatzaren 25eko idazkiak.

Aurrekarietan azaldu bezala, informazio-eskaeran Lanbideri planteatu genizkion kezketako batek zerikusia zuen gai honekin, zeren etete-prozedura hasia zela jakinarazten zuen apirilaren 9ko idazkitik (kautelazko etetearen berri ematen zuen) eta eteteari eustea ebatzi zuen maiatzaren 25eko idazkitik ezin baita ondorioztatu benetako etete-ebazpen bat egon zenik.

Hau da, ez dago jakiterik zer eteteri eusten edo iraunarazten dion maiatzaren 25eko ebazpenak. Alde horretatik, Lanbideren erantzun-idazkiko azalpenek gauzak ilundu besterik ez dute egiten honako hauek esanez: *"2013ko maiatzaren 25eko idazkian aipatutako etenaldia (...) apirilaren 9an hasitako berraztertze-prozeduraren ondorio da"*, eta *"2013ko maiatzaren 25eko ebazpenaren bidez eten zen prestazioa"*.

Hau da, erantzun-idazkiaren arabera etete-prozedura ez bada benetan etete-prozedura bat, "berraztertze" bat baizik, eta apirilaren 9ko idazkiaren bidez hasi bazen, ez da ulertzekoa maiatzaren 25eko idazkia jada hasitako





prozedura horren ondorio denik, tartean ez delako izan 25eko idazki horrek iraunaraz dezakeen inongo eteterik. Ezin da ulertu, arrazoi beragatik, maiatzaren 25eko idazkiak etetea ebatzi zuenik, lehengo etete bati eustea aipatzen baitu.

Gure iritziz, nahastearen jatorria da badagoela, nolabait, kautelazko eteteaz baliatzeko joera bat, baliabide hori aplikatzeko arrazoiak izan nahiz ez¹. Gogora dezagun kautelazko etetea soilik erabil daitekeela baldin eta egiaztatu beharreko ezaugarriren bat desagertu izanaren zantzurik badago, eta ez zantzuak betekizunak bete ez izana iradokitzen badu, eta azken hori da, hain zuzen ere, apirilaren 9ko eta maiatzaren 25eko idazkietan argudiatutakoa. Hala dago jasota 18/2008 Legearen 27. artikuluan: *“Organo eskudunak prestazioaren ordainketa kautelaz etetea erabaki ahalko du, baldin eta bizikidetz-unitatean zantzuren batzuk detektatzen badira prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzeko edo mantentzeko eskatutako baldintzetakoren bat galdu dela adierazten dutenak; eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, prestazioa kautelaz eten denetik kontatzen hasita, ebatziko du prestazioa jasotzeko eskubidea mantentzea, etetea edo azkentzea. Baldin eta prestazioa mantentzea ebazten bada, prestazioa etenda egon den bitartean jaso ez dituen zenbatekoak jasotzeko eskubidea aitortuko zaio prestazioaren titularrari”*.

Uste dugu, hortaz, kasu honetan ez zela kautelazko eteterik aplikatu beharko, benetan gertatutakoa izan baitzen kexagileak ez zuela bete agiri bat zegokion epean aurkeztu beharra —gure ustez exijitzerik ez zegoena, bestalde—, baina ez zegoen, ordea, haren egoeraren ezaugarriren bat desagertu zela pentsarazteko zantzurik.

Kautelazko etetea ebaztearekin batera etete-prozedura hasi izana jakinarazi zenean ez zegoen, ordea, diru-sarrerak bermatzeko errenta “irmoki” eteteko ebazpenik, eta horren ondorioz ez dago jakiterik prestazioaren etetea kautelazkoa edo “irmoa” izan ote zen.

Maiatzaren 25eko idazkiak dioen bezala etetea kautelazkoa bada eta irmo bihurtu bada 18/2008 Legearen 27. artikulua aplikatzearen ondorioz, ez dugu ulertzen zer etete-prozedura ireki zen apirilaren 9ko idazkiaren arabera, esan dugun bezala idazki horrek ere kautelazko etetea jakinarazten baitu;

¹ Esan behar dugu, hala azaltzen baita Lanbidek bidali digun informazioan, jarduteko modu hori zuzendu egin dela, eta beraz, ebazpen hau idazten ari garen honetan kautelazko etetea ez dela honelako kasuetan erabiltzen.





gauzak horrela, hasitako baina burutu gabeko prozedura bat izango litzateke.

Eusten zaion etetea apirilaren 9an hasitako prozedurarena bada, falta da etete horren ebazpena, maiatzaren 25eko idatzia etete horri eustekoa izan baitzen.

Etetea zer motatakoa izan zen argitzea ez da, inola ere, huskeria, zeren, egiaztatzen bada ezaugarriak desagertu izanaren zantzuak ez direla proba bilakatzen, gerta baitaiteke prestazioa berritu behar izatea, ondorioak izanez etete-datatik aurrera, etetearen neurria kautelazkoa izan baita, eta ez "irmoa". Horren arabera, kautelazko etetea izan bazen, prestazioaren berritzea apiriletik aplikatu beharko zen, inoiz eteterik izan ez balitz bezala, alegia.

Eta etetea "irmoa" izan bazen, ez zen horretarako ebazpenik izan, zeren Lanbidek gure informazio-eskaerari erantzundakoaz bestela, maiatzaren 25ean ebatzitakoa lehendik bazegoen etete bati eustea izan baitzen, baina etete hori kautelazko etetea baino ezin zen izan, eta ez besterik. Kasu honetan argitzeko dago oraindik zertan geratu den etete-prozedura, apirilaren 9ko idazkiaren bitartez jakinarazia (aurrekarietan azaldu bezala, Lanbidek emandako erantzunaren arabera ez zen etete-prozedura bat izan, "berraztertzea" baizik, baina hori ez dator bat apirilaren 9ko idazkiarekin, hor argi eta garbi hitz egiten baita etete-prozedura bat hasteaz).

Iruditzen zaigu, zalantzarik gabe, kexagilea babesgabetasun-egoeran egon dela: Batetik prozeduretan izandako nahasteagatik, eta bestetik, diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea ezin eragotzizkoa izan zelako, epe benetan laburregi bat eman baitzen berez beharrezkoa ez zen dokumentazio bat aurkezteko; eta gauza bata zein bestea aurreikusita daude 30/1992 Legearen 62.1 artikulua c) eta f) lerroketan deskribatzen dituen kasu hauetan: *"Erabat deusezak izango dira herri-administrazioen egintzak baldin eta (...) Ezinezko edukia badute (...) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira"*

Azpiparratzekoa da Mauritaniako ondasunen ziurtagiria lortu bezain pronto kexagileak aurkeztu egin zuela, ekainaren 26an, eta agiri horren arabera ez duela ondasunik herrialde horretan.





Azaldutakoagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, Arartekoa sortu eta arautzekoak, 11.b) artikuluan xedatutakoari helduz, hona hemen erakunde honen

GOMENDIOA

Ondoriorik gabe utz dadin titularren diru-sarrerak bermatzeko errenta etenarazteko ebazpena, berau den motakoa delarik ere eta ordainketa eten zen datatik berriz hasita, hau da, harrezkero kobratu ez dituen zenbatekoak ere ordainduz.

